

Eusebio Erkiaga

Euskaldunon Egunkaria, 1993-06-08: 2.

Norbaitek pentsa dezake nire zutabetxo hau hilen aterpe eta goresle ere bilakatzen ari dela. Eta egia da. Beraz, neronek ere ba dut kontzientzia hau: "Nola arraio jarri haiz orain hilen goraipamenen espezialistarena egiten?, zaharkitzen ari haiz!" Eta egia dela aitortu behar, zeren eta adinez aurrera goazenok lagunak ere egiteko denbora izan dugu, eta asko hauen artean asko izan dira nire Euskal herriaganako, nire familiaganako, nire lagunenganako eta niganako onak izan direnak; garaiz-garaiko gaizkileak ere buruan daude kokatuak, ezinbestean!, baina hauek ahaztu nahi ditut. Egiatan. Beraz, Eusebio Erkiaga nola utzi hemendik kanpo! Inoren mende idazten diruz aberastu ez den euskal idazle lekeitiar maitekor hau nola utzi nire mundutik afontuan? Ni etorri berrian (1969) Euskaltzaindiko babesleku euskaldunean ezagutu nuen. Gero, 1985an ETBrako egin genituen elkarrizketetan bi aldiz hitzegin genuen luze: behin, harremana zintan grabatuz Lekeitioko bere etxean, eta gero, bideokaxetetan Bilboko bere bizilekuan. Ordurako aspaldi idatziak zituen *Arranegi* (1985) gipuzkeraz, *Araibar* (1958) eta *Batetik bestera* (1961) bizkaieraz, bi hauek "Txomin Agirre" sariketa sonatuetan irabazle. *Txurio Txoria* oraindik argitaratu gabea orduan, eta *Jaioko dira* famatua, "Egun baltzak gogoratzeko" idatzia. Bere antzerkiak: *Antzerti jayan izan naiz* eta *Sinesgogorra*, biak sarituak, eta Olerkia *Axular handiari ohore* (1957) hau lapurteraz Saran irabazia. Beti euskararen batasun bila. Hemen geratzen zara, bada, Eusebio, euskaldunen artean, duintasun handiz, aipatutako eta geroz idatzitako beste lan ederretan.